



JUDO eta KIROL ELKARTUEN EUSKAL FEDERAZIOA

FEDERACION VASCA DE JUDO Y DD. AA.

TENIFIKAZIO-IKASTAROEN ARAUDIA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO-GELA

GRADU AZTERKETA

-JUDO-

Kirolari guztiek, gerriko marroitik aurrera, goragoko gradu bat lortu nahi badute, dela **Lehiaketa** edo **Ikastaro Teknikoak** bidez, dela **Teknika Bakarrik** bidez, hori eskatzeko aukera izango dute honako eskakizun hauen arabera:

Judo Graduko Azterketarako programa teknikoa berbera izango da gradua gainditu nahi duen hautagai edonorentzat, hura lortzeko aukeratzen duen bidea edozein izanik ere.

Lehiaketa bidez:

1 - Txapelketa hauek izango dira baliozkoak lehiaketako puntuak eskuratzeko:

Espainiako txapelketa

- Absolutua Emakumeak eta gizonak
 - 23 azpitik Emakumeak eta gizonak
 - Junior 20 azpitik Emakumeak eta gizonak
 - Kadeteak Emakumeak eta gizonak
 - Katak Emakumeak eta gizonak
- Txapeldun nazionalak puntuazio gorena lortuko dute.

Madrilgo Liga Nazionala

- Absolutua Emakumeak eta gizonak.
- Gasteak Gizonak

Euskadiko txapelketak

- Aurrekoaren Kategoría berberak

Lehiaketako Gradu Azterketa

- Dagokion deialdia, indarrean dagoen EFNren araudiaren arabera..

2.- danerako hautagaiek Gradu Azterketa egin ahal izango dute 15 urte beteta baldin badute. Horretarako, Gerriko Beltzaren Txartela eduki beharko dute.

3.- Judoko Graduz igotzeko hautagaiek Gerriko Beltzaren Azterketa Txartela aurkeztu beharko dute parte hartzen duten lehiaketan.

4.- Lehiaketa edo entrenamendu ofizialetan lortutako puntuak baliozkotu eta jaso egingo dira horretarako deitzen diren "Gradu Azterketako" lehiaketetan, Gerriko Beltzaren Azterketa Txartelean, hain zuzen; eta RFEJYDAko EFNri helarazten zaion "Gradu Azterketako Akta Ofizialean" ageriko dira.

5.- Lehiaketa edo entrenamendu ofizialetan lortutako puntuak "Gradu Azterketako" jardunaldian jasotzeak berekin dakar JUDO eta KIROL ELKARTUEN Euskal Federazioko Batzar Nagusiak ezarritako tasa ordaintzea.



JUDO eta KIROL ELKARTUEN EUSKAL FEDERAZIOA

FEDERACION VASCA DE JUDO Y DD. AA.

6.- Gerriko Beltzaren Azterketa Teknikoa egin ahal izateko, 40 puntu lortu beharko dira. Puntu horiek eskuratu ahal izango dira lehiaketetan parte hartuta, entrenamendu ofizialetan parte hartuta edota gerriko beltza lortzeko azterketarako prestatzeko ikastaroak eginda.

1. taula

Puntuen kontzeptua	Puntu kupurua	Gutxieneko Puntuak
Lehiaketa	Ippon 10 puntu, Waza Ari 7 puntu	40
	Gradu Azterketako Lehiaketan parte hartzeagatik, 4 puntu	
Entrenamenduak	Entrenamendu ofizialetara bertaratzeagatik, 6 puntu	
Prestaketak ikastaroak Tecnika - Katak	Lortu nahi den graduaren arabera, indarrean dagoen araudian ezarritako ikastaro-kopurua – 3. taula	

7.- Lehiaketa edota Ikastaro eta Teknika bidez hurrengo gradua lortzeko eta aurkeztu ahal izateko gutxieneko denbora jarraian adierazten da:

2. taula

Dan	Lehiaketa-Ikastaro Tekniken Bidez	Bide Teknikoa	Sari bidez	Lizentziak
De Marrón a 1º	1 urte	2 urte	RFEJYDA	3 edo 5 tarteka
1. danetik 2.era	2 urte	3 urte	SARIEI	1. daneko 2
2. danetik 3.era	3 urte	4 urte	BURUSKO	2. daneko 3
3. danetik 4.era	4 urte	5 urte	ARAUDIAREN	3. daneko 4
4. danetik 5.era	5 urte	6 urte	ARABERA	4. daneko 5
5. danetik 6.era	6 urte	7 urte		5. daneko 6
6. danetik 7.era	7 urte	8 urte	EFN /UEJ Erregelamendua	6. daneko 7
7. danetik 8.era	8 urte	9 urte	EFN/IJF Erregelamendua	7. daneko 8

8.- 1. edo 2. danerako azterketa egiten duen kirolariak kategoria bereko uke batekin aritu beharko du aurkezten deneko Gradu Azterketaren unean.

9.- 3., 4. edo 5. danerako azterketa egiten duen judokari aukera ematen zaio dan bat goragoko uke batekin aritzeko aurkezten deneko Gradu Azterketaren unean.

10.- Kontinenteko Federazioak (UEJ) emango ditu 7. mailako judo graduak. Nazioartekoa (IJF), 8., 9. dan eta Judoko hurrengorako, curriculum RFEJYDAn aurkeztu ondoren. Azken horrek espedientea helaraziko dio UEJari edo IJFri, dagokionaren arabera..



JUDO eta KIROL ELKARTUEN EUSKAL FEDERAZIOA

FEDERACION VASCA DE JUDO Y DD. AA.

Lehiaketa bidez – Ikastaro E. P. G. tekniko bidez:

1.- Ikastaro tekniko bakoitzak 3 ordu iraungo du gutxienez

3. taula

Dan	Gutzienerako denbora 1.urteko murrisketa	Egindako ikastaroen gutxienerako kopurua (3 ordu ikastaro)	Licencias
1. rako	1 urte marroian	6 ikastaro edo 18 ordu	3 jarraian edo 5 tarteka
2.erako	2 urte 1. danean	8 ikastaro edo 24 ordu	1. daneko 2 lizentzia
3.erako	3 urte 2. danean	10 ikastaro edo 30 ordu	2. daneko 3 lizentzia
4.erako	4 urte 3. danean	12 ikastaro edo 36 ordu	3. daneko 4 lizentzia
5.erako	5 urte 4. danean	14 ikastaro edo 42 ordu	4. daneko 5 lizentzia
6.erako	6 urte 5. danean	16 ikastaro edo 48 ordu	5. daneko 6 lizentzia
7.erako	7 urte 6. danean	Katas Judo ezagutza	UEJ araudia
8.erako	8 urte 7. danean	Katas Judo ezagutza	IJF araudia

2 - Graduatu-pasea Lanbide Heziketako Ikastaroaren modalitatearen bidez egiten dutenek, kirolariak, ikastaroen zikloaren hasieran, eskabidea izapidetuta izan beharko du, eskatutako dokumentazio guztia aurkeztuta, ezarritako azterketa-erakundearen federazio-tasa ordaindu izanaren egiaztatzearekin batera.

3 - Gutxienez Dan bakoitzerako adierazitako ikastaroetara joanez gero, hautagai guztiek azken proba egingo dute horretarako deitutako azterketa-deialdian; azterketa edo haren arloetako bat gainditzen ez badute, behar dituzten ikastaroak egingo dituzte proba hori gainditu arte, eta hurrengo deialdian aurkeztu beharko dute; azken errehabilitazio-azterketa horrek ez du kosturik izango hautagaiarentzat...

4 - Gradu/Dan berria lortzeko proba lau arlo edo modulu hauetan banatuta egongo da:

1.- Funtsak

2.- Nage Waza

3.- Ne Waza

4.- Kata

5 - Txapelketa bidez lehiaketa fasea gaindituta duten hautagaiei graduan egoteko iraupena urtebete murriztuko zaie (2. taulako 3. zutabearen arabera).

6 - Irakasle-entrenatzaile eta arbitro kideak baliozkotu egingo zaie birziklatze ikastaroetan, biltzarretan, mintegietan eta etengabeko prestakuntza jardueretan bertaratu eta/edo parte hartzea..

7 - Azterketa proba egiteko unean, graduz pasatzeko dokumentazio egokia bideratuta eta dagozkion tasak ordainduta eduki beharko dira. Dagozkion tasen ordainketa ziurtagiria eskatutako gainerako dokumentuekin batera aurkeztuko da.

8 - Ikastaro bakoitzean nahitaez aurkeztuko dira Gerriko Beltzaren Txartela eta indarrean egongo den lizentzia; eta gerriko marroiek, gainera, Kyu-en txartela (Kyu etiketa guztiak itsatsita); irakasleak sinatuta eta data jarrita dutela, ezarrita egon litezkeen tasen ordainketa ziurtagiriarekin batera.

9 - Bai Gradu Azterketan, bai prestaketa teknikoko eta katetako Etengabeko Prestakuntza Ikastaroetan, nahitaezkoa da judogi zuria eta neskek kamiseta zuria eramatea. Arau horiek betetzen ez dituenak ezin izan izango du ikastarorik egin..



JUDO eta KIROL ELKARTUEN EUSKAL FEDERAZIOA

FEDERACION VASCA DE JUDO Y DD. AA.

10.- Ikastarogileek talde berezietan egingo dute lan, lortu nahi duten gradu mailaren arabera.

11 - Ez dago baimenduta ikastaroetara Uke gisa soilik bertaratzea. Bertaratu guztiek dagokien gradu taldeko eta maila edo kategoriako lagunekin egingo dute ikastaroen lana eta azken proba edo azterketa.

12 - 1. edo 2. Danerako hautagai den kirolariak kategoria bereko Uke batekin parte hartu beharko du. Hori posible ez balitz, Dan bat goragoko Ukearekin parte hartzen utziko zaio aurkezten den Gradu Azterketan. 3., 4. edo 5. Danerako hautagai den judokari ere Dan bat goragoko Ukearekin parte hartzen utziko zaio.

Teknikaren bidez bakarrik:

1 .- Bide teknikitik, lehiaketarik gabe eta/edo ikastaro teknikorik gabe aurkezten direnei, graduan gutxieneko iraunaldi hau eskatuko zaie:

4. taula

Gutxieneko denbora	Dana	Lizentziak
2 urte marroian	1.rako	3 jarraian edo 5 tarteka
3 urte 1. danean	2.erako	1. daneko 2 lizentzia
4 urte 2. danean	3.erako	2. daneko 2 lizentzia
5 urte 3. danean	4.erako	3. daneko 3 lizentzia
6 urte 4. danean	5.erako	4. daneko 4 lizentzia
7 urte 5. danean	6.erako	5. daneko 5 lizentzia

Oharra: Jatorrizko itzulpena gaztelaniaz

Itzulpena: Saretik zerbizuak, S.L.
Berrikuspena: Jon Legorburu
Gainbegiratzea: Gorka Sagastume Yubero – 7. Judoko Dan
Osaera gaztelaniaz: Juan Jose Etxebeste Ugarte – 8. Judoko Dan

Frc. Valcarcel Robles Jaunari, 9. Judoko. Dan
Madrilgo Judo Federazioko presidentearen baimenari esker